



GAZTEAK PROTAGONISTA KULTUR ASTEETAN

Leitzan eta Lizartzan gazteentzat ekitaldi ugari izan ziren atzokoan; egitarauak aurrera jarraitzen du gaur ere 5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2009-05-24**

VIIURTEA 1.710.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ekitaldiz beteriko eguna izan zen atzokoa; haurrentzako tailerrekin hasi zuten eguna Plaza Berrian. A. IMAZ

KULTUR ANIZTASUNA ETA PARTE-HARTZEA

TOLOSA 'Mundujaia' jardunaldien baitan, beste kulturak hurbildu nahi izan zituen atzo Ereitek; gaur kultura arabiarra izango da protagonista 6

**Rafael Polonia
eta Tanya Ruivo
munduan
barrena
bizikletaz**



Polonia eta Ruivo txirindulariak Tolosan eginiko egonaldian. JOXEMI SAIZAR

TOLOSA Tolosan izan ziren bi egunez, webgune batean eginiko harremanari esker 7

**Txirri, Mirri eta
Txiribiton
Juniorren
ikuskizunaz
gozatu dute
ehunka haurrek**

TOLOSA Leidor antzokian 'Bihurrikeriak' emanaldia eskaini zuten hiru pailazoek 4



A P A I N D E G I A

Korreoa kalea 60 - 20400 TOLOSA

☎ 943 116 456



Goizean haurrak aritu ziren dantzan herriko plazan eta arratsaldean Alurr dantza taldearen emanaldian jende ugari bildu zen. A. IMAZ/R. CALVO

Dantzak hartu du herria, III. Dantzari Txiki Egunean eta Alurr Egunean

IBARRA la 300 gazte aritu ziren goizean dantzan; Alurren emanaldiak ere jendetza bildu zuen 4

asteartetik aurrera
ARRAINDEGIA ZABALIK

azoka

Euskal Herria kalea, 45 • Ibarra • ☎ 943 67 62 70

Kurpil zoroak



» Uzturretik

Felix Irazustabarrena

Ditxosozko krisiaren irtenbideak langileen bizkar hartu nahi direla salatu genuen osteguneko huelgan, langileak aintzat hartzen ez dituen sistema ekonomiko eta soziala orokorrean. Berriak, bankak, patronalak, administrazio publikoak... osatutako

kurpil zoroari buelta gehiago ematea ez dela irtenbidea jarri nahi izan genuen agerian.

Behin eta berriro azaltzen zaizkigubata bestearen ondoan etanahastuta kurpil zoro desberdinen adibideak, krisia eragin, eta sortutakoaren konponketa bide beretik bilatu nahi dutenak.

Kotxe berriak erosteko laguntza zuzenak ematen dituzte autogintza krisian ito ez dadin, ondoren konstruktioa ez geratzeko karrretera gehiago beharko ditugu, segidan etorriko dira garraio publikoa bultzatzeko kanpainak, edo berrerabilpenerakoak, erreziklatzekoak... Zaharra azkar bota erreziklatu egin behar dugu eta! Diru mugitzea da soluzioa.

Garraioan ari garela, ustez arazo hori konponduko duelako aitzakian trenak 300 kilometroko abiatan jartzen dituzte, 25.000 biztanleko hiri batek (oraingo gastu mailan pentsatzen dut) gastatzen duen energia erabiliz. Horren ondorio eta hori konpontzeko ingurune naturaletan eragin eta hauek industrializatu behar dira, Gazumeko parke eolikoak kasu, baina honek ez dakar zentral nuklearrak ixtea. Ez dira bata bestearen ordeko, ez, gehiago behar da, gehiago sortu, gehiago kontsumitu...

Orokorrean gure neurriaren gainetik bizi izanak, bizi nahi izanak, sortu omen du adituek diotenez egungo krisia, gehiegi kontsumitzaiek alegia, eta gehiago kon-

tsumitzeko neurriak omen dira konponketarako bidea. Diru publikoa banku eta enpresetara bideratutako xoxen bidez edo gure gastatzearekin zuzenean, orain arte irabaziak pilatu dituztenei laguntzea soluzioa. Galerak bakarrik sozializatzen dira gizarte hotetan.

Izena aproposa ez duen osteguneko lan uzteak, lana uzten digu ostiraletik aurrerarako. Eguneroko jardueretatik, kontsumo ohituretatik hasita zoro moduan bueltak dabilen kurpila geratzea.

Krisi honen irtenbidea, aitzakia edo dena delakoa langileriaren eskubide eta interesen kaltean ez izatean dago lehen borroka, baina horrek ere ez du konponbidea ekarriko. Greba eguna eta gero, beste kurpil bat behar dugula aldarrikatzea, lantzea da ondorengo erroka. Dagoena bere lekutik atera

eta ardatza aldatzeko bidean abiatzea. Eredua aldatu behar dugu, bestelako gizarte bat, bestelako kurpilak, ezinbesteko direlako.

EAJk Ajuria Eneko poltrona galdu du eta ez zaio gustatu. Orain arte estatuko gobernu ezberdinekin izandako amodio erlazioak bestelakoak izan daitezke hementik aurrera.

Agian urteetan erakutsi izan duten anbiguetateari buelta eman eta ez zaiela komeni konturatuko dira. Agian, behingoz herri honen etorkizunari buruz argi eta garbi hitz egingo dute. Ez dut uste hala ere.

Tamalez, etorkizun ez urrunegi batean berriro elkarri loxintxiak egiten ikusiko ditugulakoan nago. Izan ere, orain mingainean darabilten diskurtsoa flatus vocis hutsa iruditzen baitzait.

K Komikia

Gorka Salaberria



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Gazumeren etorkizuna arriskuan

» Iritzia

Martin Roteta
Sagain mendi taldea

Duela urte eta erdi, mendi talde bat sortzeko asmotan biltzen hasi ginenean, gure artean inorke zuzen pentsatuko inguruan hone-lako arazo batekin topatuko ginenik. Mendi talde xume bat izan nahi genuen, irteerak antolatu, mendi berriak ezagutu, taldean ondo pasa, paisaiak disfrutatu, ingurumena errespetatu... hitz batean, mendiaz gozatu patxada ederrean herritarrei horretarako aukera bat eman.

Zoritarrez, beste eginkizun bat etorri zaigu gainera. Gure Gazume maitearen txikizio arriskua dela eta bere defentsan atera beharra.

Badakigu oraindik jende askok ez duela ezagutzen Gazume. Gehienek joera Erniora igotzea izan da eta behar bada horregatik egon da hain natural eta garbi. Ez dago bide-zidor ezagun edo markatu bat ere igotzeko, edozein lekutatik igotzeko. Arkaitzez eta belarrez osatua dago eta gora igotzean, gailurraren iparraldean, pago oker batzuk ikus daitezke harri artean egoera zaillean haziak. Bertatik Kantauri itsasoa ikus daiteke landetaraino. Inoiz izan ez bazara ezagut ezazu, ez zara damutuko.

Orain, berriz, haize-errotak jarri

nahi omen dituzte. 15 guztira. 71 metroko garaierako posteak eta 45 metroko diametroa osatuko dute hiru palen artean. Beraz, guztira 100 metroko altuera hartuko luke.

Ez dugu pentsatu nahi honelako tresnek, haizearen indarrari euste-ko, zenbat metro kubiko hormigoi eta zenbat tona burdin beharko duten.

Ez dugu pentsatu nahi material hau guztia lur azpian sartzeko, zer nolako txikitzeak egingo dituzten. Hau guztia aurrera eramateko 7 metroko zabalera duen errepide bat eraiki nahi omen dute. Auskalo zenbat tonako kamioiak eta gruaek eramateko. Gainera, izugarritzko posteak eraikiko dituzte hor tzen den tentsio altuko energia Azpeitia aldera garraiatzeko.

Izugarria benetan, eta are izugarriagoa egiten da jakitean hau guztia leku babestu batean eraiki nahi dutela. Izan ere, Gazume L.I.C. (Lugar de Interes Comunitario) baten barruan omen dago.

Lau urtetik behin, hamabost egunez, gurekin gogoratzen diren gizon horiek libre ahal dute edozein astakeria egitea ondorengo lau urtetan? Egun batez trajea eta gorbata kendu, mendiko botak eta koadrodun alkandora jantzi, lepotik jertsea hartu eta "pick-nick" bat egitera gonbidatzen ditugu "in-situ" Gazume gainean. Etekin ekonomikoan ametsak etxean

utzita noski. Dena dela, harritzen gaituena proiektua hain isilean eramatea da (kasualitatea ote?). Guk ere kasualitatez jakin genuen Gazumeko proiektua garatzen ari zirela. Iazko urteko mendi astea antolatzen ginela, taldeko batek ekarri zuen berria, eta egokia iruditu zitzaigun mahai inguru bat antolatzea gai omen inguruan, mendi aste honen barruan. Denboraz larri ibili ginenez, ez genuen mahaia nahi bezala osatzerik izan. Talde ekologista bateko kide bat eta E.V.E.ko (Ente Vasco de la Energía) ordezkari bat etorri ziren. Harritzekoa bada ere, ekologisten taldekoak informazio

gehiago eman zigun E.V.E.koak baino. Azken honek, energiaren kontsumo eta abarrez zifra eta taula mordo bat jarri zizkigun, baina ez omen zekien Gazumeko proiektuaren prozesua zein fase-tan zegoen. Kasualitatea! Hau guztia iazko abenduan.

Apirilean alegazioak aurkezteko epea ireki zen. Baina hau ere, talde batzuk adi egon zirelako jakin genuen. Bestela, ez ginen enterratu ere egingo. Nola liteke abenduan ezer jakin ez eta proiektua hain aurreratuta egotea? Kasualitatea hau ere?

Pasa den igandean, bilkura xume bat egin genuen Zelatunen.

Hainbat mendi elkarte eta talde ekologistak antolatu eta aldi-zikari, sindikatu eta abar luze batek babestua. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, ehunka batzuk bildu ginen, eta uste dugu denen sentimendua izan zela: mesedez, errespetu pixka bat.

Gu ez gara adituak, baina, ez ote litzateke hobe plan orokor bat egitea energia berriztagarri buruz, gizarte eragileekin hitzartuta eta epe luzera begira.

Ez dezagun ahaztu lur hau errentarik ordaindu gabe babesten gaituen gure etxea dela. Eta guzxienez, guk aurkitu genuen bezala aurki dezatela ondorengoek.

Diru goseak ez gaitzala itsutu. Zain dezagun Gazume, zain ditzagun mendi gailurrak, leku babestua eta gure ingurua.



Gazumen aurreikusita dagoen parke eolikoaren aurka agertu ziren hainbat eragilek, tartean eskualdeko zazpi udalek eta hiru elkarte, prentsaurrekoa egin zuten pasa den astean Errezilen. E. EZEIZA

G Gutunak

Jose Bernardo Bidaola 'Txirrita' oroimenean

Aste honetan betetzen dira 33 urte Joxe Bernardo Bidaola Txirrita erailda agertu zenetik Etxalarko mendietan hilabete osoa desagerturik egon ondoren.

Aurtengo honetan, Tolosako Udaletxeak "biktima" batzuei egin behar dien ekitaldiarekin markatuta dator. Dirudienez lehengo eta bigarren mailako biktima daude. Datorren maiatzak 29an Udaletxeak antolaturik ekitaldi bat egin behar dute "biktima guztien" izenean, beste aldeko biktimak ahaztuz, nahita ahaztuz. Era berean, azken hauek ez-kutatuz aparte, haiekiko oroimena eta errespetua zigortzen dute, guk antolaturiko azkeneko ekitaldian ikusi dugun bezala.

Orain dela 13 urte, Tolosako kanposantuan egin zutenarekin nahikoa ez, eta joan den urrian, Joxi eta Joxearen desagertetaren eta eraiketaren 25. urtemuga salatu nahi izan genuenean, berriro jipoiatuak eta atxilotuak izan ginen. Edota joan den martxoan espetxe politika kriminalak eraildako Mikel Lopetegi oroitzeko Urkizun egitekoa zen lore eskaintza galarazi zutenean.

Gu "pozoinduta" gaude ETA erakundearen ekimena ez omen dugulako kondenatzen. Akaso frankismoaren oinordekoek (Yañez eta PP) kondenatu duzue inoiz Francoren estatu kolpea eta hurrengo 40 urtetan bera eta bere jarraitzaileek egindako bonbardaketak, fusilamenduak eta sarraskia? Akaso GAL erakundeak sortu zutenen oinordekoek (Renedo eta PSOE) kondenatu du-

zue inoiz erakunde horrek egin-dako 28 eraiketak, Joxi eta Joxe-an, eta Juan Carlos Garcia Goenarena tartea? Jokin Bildarratz eta enparauek, Madriletik etortzen den guztiari, izan Garzonen agindua, izan Asociacion de Victimás del Terrorismo delakoa; men egiten diozue, zuen herritar-rrak eta beraien eskubideak saldu behar baldin badituzue ere.

Zuek omendu nahi dituzuen batzuk herri honen askatasun nahiak zapuztera etorritakoak dira, beste batzuk, zuek ahaztuta-koak eta akatsak akats, herri honen errekonozimendua eta aitortza-ren alde lana eta borroka egindakoak dira.


Ez dugu hipokresiaz beteriko erabakirik eta hitzik onartuko. Azken 32 urteotan Txirritak era xumeanean gure omena jaso du,

eta aurtan ere hori dagure asmoa, igande honetan [gaur] eguerdiko 12:00etan Uzturren dagoen monolitoaren aurrean, hain zuzen ere.

Mikel Zabala. Tolosako Amnistiaren Aldeko Mugimenduarren izenean.

@ Zurea da hitza. Zure herrian kexarik, iradokizunik edota bestelako eskaerarik baduzu gure webguneko *Zurea da hitza* atalean plazara ditzakezu guztiak. Halaber, inguruko albiste baten berri izanez gero, bertan eman dezakezu argitara. Hitza irakurleen hitzak ere tartea du, ostiraleko alean argitaratuko dira bertan biltzen diren testu guztiak. Bisita ezazu Hitzairen webgunea:

www.tolosaldekohitza.info



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 - 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAX: 943 670719
WWW.FUNERARIAVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

III. Dantzari Txiki Eguna eta Alurr Eguna ospatu dituzte

Ibarra » Goizean txikiak aritu ziren dantzan; arratsaldean Alurr Dantza Eskolako kideek emanaldia eskaini zuten.

ASIER IMAZ

Dantzaren inguruan mugitu zen atzo Ibarra. Goizean txikiak plaza zuten, arratsaldean Alurr Dantza Eskolako kideek emanaldia eskaini zuten eta ilunabarrean egun guztian zehar begira egon zirenak erromeria eduki zuten, barneko harra kentzeko.

III. Dantzari Txiki Eguna

Ibarrako plaza gainezka zegoen 10:00etan. Gurasoak, dantza irakasleak eta batez ere haurrak, haurrak nonahi.

III. Dantzari Txiki Egunerako 300 haur inguru espero zituzten eta ez ziren urruti ibiliko Ibarran bildutakoak. Gurasoek berriz erren seme-alaben urteko lana ikusteko aukera izan zuten.

Alurreko ikasleak

Alurreko ikasleak Berastegi, Altzo, Irura, Zizurkil, Anoeta, Bera, Tolosa eta Ibarratik urbildu ziren. Lehenik herriko plazan Agurra dantzatu zuten denek batera. Ondoren, hainbat haurrek dantzaren bidez ikurrina osatu zuten. Plaza-

ko emanaldia amaitzean Euskal Herria kaletik kalejiran joan ziren Emeterio Arrese plazaraino. Bertan berriro dantzan aritu ziren, gurasoek prestatutako hamaiketakoa jan aurretik.

Goizeko ekitaldiekin amaitzeko plazara itzuli ziren. Han talde bakoitzak dantza bana egin zuen. Ondoren guztiak batera fandangoa eta arin-arina ere dantzatu zuten.

Emanaldia eta erromeria

Arratsaldean Alurr Eguna ospatu zuten. Dantza Eskolako kideek 18:00etan emanaldia eskaini zuten plazan kokatu zuten karpan. Zazpi talde aritu ziren dantzan, mutilen taldearekin batera, guztira 200 dantzari inguru.

Edu Muruamendiarazek erakutsitako koreografiak eta gazteek beraiek prestatutakoak egin zituzten: Makil jokia, Fandangoa, Arinarina, Obaloa, Paloteados... Horietaz gain betiko dantza batzuk ere eskaini zituzten: Sagar dantza, Luzaide, Uztai, Agurra...

Arratsaldeko emanaldia bukatu ondoren, erromeriarekin jarraitu zuten jaiak. Alurr taldearekin azken urteotan lan egin duten musikarietako hainbatek jo zuen erromerian.

Ibarrako Alurr Dantza Eskolakoek afaria egin zuten jai eguna behar bezala bukatzeko.



III. Dantzari Txiki Egunean 300 haur inguru elkartzea espero zuten. Alurr Egunean 200 aritu ziren. ASIER IMAZ



Txoratzen Txirri, Mirri eta Txiribiton juniorrekin

TOLOSA » Txikiak Txirri, Mirri eta Txiribiton juniorren pailazoekin gozatzeko aukera izan zuten atzo, Leidor antzokian. Hiru pailazo gazteek bederatzi esketx-jolas dibertigarri biltzen dituen *Bihurrikieria* emanaldia eskaini zuten. Tartean *Txirri ta Mirri ta Txiribiton*, *Sudur Gorria*, *Katxurri Millputxi* edota *Paristik natorren* bezala abestiak kantatzeko aukera ere izan zuten. Txirri, Mirri eta Txiribiton aski ezagunak dira gure artean, baina oraingoan «gaztetuta» itzuli dira, nahiz eta Txirik jakintsua, dotorea, eta azkarra izaten jarraitzen duen; Mirri bihurri hutsa, inbidiatua eta zirikatzailea; eta Txiribiton, aldi, ogi pusketa gozoa, samurra eta adiskide leiala. R. CALVO

Ekitaldi ugari izan dira Lizartzako eta Leitzako kultur asteen baitan

Kultura » Eguraldia lagun zutela Kultur Astearen ekitaldiez gozatzeko aukera bikaina izan zuten adin guztietako herritarrek.

ASIER IMAZ-REBEKA CALVO

Lizartzan eta Leitzan Kultur Astea ospatzen ari dira eta ekitaldi ugari antolatu ziren atzokoan.

Leitzan sensualitate puntuz

Aukera zabala zekarren berarekin XXXI. Kultur Asteak atzokoan. Goiztiarrenak mendira joan ziren 07:00etan, herriko mugak ezagutzeko asmoz. Ondoren bazkaria eta guzti egin zuten. Gazte Asanbladako kideek berriz Gazte Eune ospatu zuten. Antzerki, hitzaldi eta bazkariaren ostean parranda egin

zuten Gaztetxeko kontzertuen musikarekin. Gaztetxoek, 12-15 urte bitartekoek, goizean graffiti tailerra eduki zuten igerilekuan. Gaiak honela zion: *Emaiozu igerilekuari sensualitate punttu bat*. Dena esan behar baldin bada, gaiari egokitzea kostatzen zitzaien marrazkilariei. Agian jende heldu gehiegi zegoen inguruan askatasunez marrazteko. Hurrengo larunbatean tailer hauek bigarren zatia edukiko dute leku berean.

Lizartzan, ume jolasak

Lizartzan Udal Alternatiboak antolatutako Kultur Astearen baitan ume jolasak izan ziren lehenik eta antzerki emanaldia ondoren. Gaur, berriz, Helduen Eguna izango da eta hamaiketako, pilota saioa, bazkaria eta herri kirolak izango dituzte egun osoan zehar.



Atzo bezala, hurrengo larunbatean ere graffitiak egiteko aukera egongo da Leitzako igerilekuan. ASIER IMAZ



Gustura ibili ziren atzo Lizartzako haurrak plazan jolasean. R. CALVO



IMH ELGOIBAR



DBH amaitu ondoren	Batxilergoa ikasi ondoren	Goi-Mailako Zikloen ondoren
<p style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 2px;">Heziketa Zikloak Erdi-Maila</p> <p style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 2px;">2 urte</p> <ul style="list-style-type: none"> • Mekanizazio • Makineria eta linea erabiltzen instalazio eta mantentze elektromekanikoa <p style="font-size: small;">Titulua: Teknikaria</p>	<p style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 2px;">Heziketa Zikloak Goi-Maila</p> <p style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 2px;">2 urte</p> <ul style="list-style-type: none"> • Proiektu mekanikoen garapena • Fabrikazio mekanikoko produktibitate programazio • Industri ekipoen mantentzeak <p style="font-size: small;">Titulua: Goi-mailako teknikaria Proiektuetan oinarritutako ikasketak Inkubatzaile Elkartea</p>	<p style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 2px;">IMH Ingeniaritza Eskola</p> <p style="background-color: #e91e63; color: white; padding: 2px;">3 urte</p> <ul style="list-style-type: none"> • 3 urteko lan esperientzia • Ikasketak ondare tekniko irabazlearekin • Bolonikako lizean egokitutako titulua <p style="font-size: small;">Titulua: Ingeniaritza Ikasi eta lan ondare metodologi Inkubatzaile Elkartea</p>
ATE IREKIAK: Maiatzak 30 - 11:00etan		
		
IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoak. 943 74 41 32 - imh@imh.es - www.imh.es		

Ipar Kutxan,
tolosar guztien
ametsak bete
nahi ditugu.

Zatoz eta
ezagutu gaitzazu,
Ipar Kutxaren
bulegoetan:

Gernikako Arbola lorategiak, 2.
Tolosa.

Zurriola hiribidea, 18.
Donostia.

Kardaberaz kalea, 54.
Hernani.



ZU BEZALAKO PERTSONAK



O+Hatz proiektuko Jon Garmendia ibartarrak eta Iñaki Plaza donostiarrek euskal musika tresnen erakustaldia egin zuten arratsaldean. REBEKA CALVO

Kultur Aniztasunaren Eguna ospatzeko ekitaldiak Plaza Berrian

Tolosa » 'Mundujai' jardunaldiak antolatu ditu Ereitek; asteburuan zehar kultura desberdinak ezagutzeko parada izan da.

ERREDAKZIOA

Kultur Aniztasunaren Eguna izan zen ostegunetan eta hori dela-eta Ereite Elkarteak ekitaldi desberdinak antolatu zituen.

Mundujai izenpean kultura desberdinetako dantzak, musikak, jakiak eta tailerrak izan dira aurreko bi egunetan, eta gaurko ere kultura arabiarreko tailerrak antolatu dituzte 17:00etatik 20:00etara Plaza Berrian.

Ereitek esandakoaren arabera, «hemen dauden kultura batzuk ezagutzera» eman nahi izan dituz-

te jardunaldi hauekin eta baita «kultur aniztasuna modu parte-hartzailean sustatu» ere. Hori dela eta, ostirelean Afrika gerturatu zuten Tolosara.

Lehenik eta behin, *Ama Afrika* izeneko ikus-entzunezkoa eskaini zuten eta ondoren Senegaleko musika izan zen nagusi Jum Jum eta Kataia taldeei esker.

Atzokoan, aldiz, haurrentzako tailerrekin hasi zuten eguna; te dastaketa izan zuten, pintxoak, artisaunen produktuak erosi eta ikusteko aukera... Arratsaldean zehar, gainera, herriko GKO Galeriekioek graffiti erakustaldia egin zuten. Baina aukera gehiago ere izan zen: O+Hatz proiektuko Jon Garmendia ibartarrak eta Iñaki Plaza do-

nostiarrek euskal musika tresnen erakustaldia egin zuten eta ondoren, Filipinetako dantzak ikusteko aukera izan zen Pagkakaisa taldearen eskutik.

Iluntzean afro-arabiar perkusio tailerra eskaini zuten Mustapha taldekoeke ta bukatzeko dantza latino tailerra ere izan zen Ereiteko kideek eskutik.



Haima bat atondu zuten Plaza Berrian goizean; arratsaldean, graffitiak egiten aritu ziren. A. IMAZ/R. CALVO

Goiz benetan ederra larunbaterako Tolosako azokan

PABLO ALBERDI

Eguraldi onak oso eragin positiboa izan zuen azokarengan. Goiz osoan zehar jende eta bisitari asko ikusi ahal izan genuen Tolosan. Azokaren eskaintza ere oso zabala izan zen, urteko garairik oparoenean bait gaude. Barazki asko mahaietan, baba, ilarra, patata berria eta zainzuria nagusi eta izar direla, eta perretxiko zerrenda zabala ere bai. Ziza, onddo eta sederuela barne, kilo asko izan zen mahaietan, eta bertakoak ere ikusi genituen.

Berdura plazan ere egundoko aukera ikusi genuen, saltzaileek horrela jarri baitzuten. Apaingarriko landare zerrenda oso zabala zegoen, eta honekin batera baratzarako landare asko ere bai aukeratu. Askok izan ziren atzo baratzarako lanari eragitera aukeratu zutenak, eguraldi ona zela medio postuetan erosle ugari izan ziren. Barazki zerrenda ere oso zabala izan zen.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk.	Gares.
Landareak	
Alegria	1,20 -
Erroneroa	4,00 6,00
Klabinela	6,00 -
Xarbota	4,00 6,00
Geranioa	2,00 -
Salbia	1,00 1,20

BERTAKO PRODUKTUAK

Fruta	
Errezil sagarra	0,60 5,00
Intxaurra	2,50 4,00
Urra	2,00 3,00

Perretxikoak

Ziza	15,00 42,00
Onddo	24,00 32,00
Senderuela	20,00 -

Barazkiak (kiloa)

Tolosako babarruna	10,00 12,00
Tomatea	3,00 -
Porrua	1,00 3,00
Babarrun zuria	8,00 -
Kalabaza	1,50 3,00
Patata	1,00 1,50

Besteak

Ogi biologikoa (900gr)	3,20 -
Arraultzak	2,50 -
Artisau ogia	2,80 3,70
Madalenak (500gr)	3,60 -
Irasagarra	3,00 6,00

Gaztak

Gazta berria	17,00 -
Ardigazta	14,00 24,00

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00 3,00
Azenarioa	2,00 2,50
Baratzuria	1,60 6,00
Arroza	1,90 2,00

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Intza.** Herriko plazan 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzeakoa, modu onean salgai. Ezinduentzako egokitua. Aralarko magalean landetxea jartzeko aukerarekin. Harremanetarako telefonoak: 628 03 07 27 / 609218341 / 646111485. Posta elektronikoa: estanga_intz@hotmail.com

JOXEMI SAIZAR

Tanya Ruivo eta Rafael Polonia bikote portugaldarrak Europa eta Asian barrena bizpahiru urteko bizikleta bidaia hasi zuen joan zen hilabetean. Ovar herritik (Oportotik 35 kilometrotara) abiatu ziren apirilaren 8an, Portugalgo mendialdetik muga zeharkatu ondoren («zatirik gogorra», diotenez), Espainian sartu eta Zamora, Valladolid eta Burgos zeharkatu dute, Santio bidea jarraituz, zelaian. Tolosara Iruñetik barrena iritsi ziren apirilaren 29an, Iñaki Olaetxea eta Eli Gurrutxagaren etxean izan ziren bi egunez, etxean bidaiariak hartzeko prest daudenen webgune baten bidez. Hemendik Donostia eta Frantziako kostalde atlantikoetik barrena iparraldera jo dute.

Rafael Poloniak 32 urte ditu eta antzerki munduan ari zen lanean, alderdi teknikoan. Portugalera z gain, gaztelera, frantsesa eta ingelera ere badakizki. Tanya Ruivo Quebec-en jaio zen duela 27 urte, baina txikitandik bizi da Portugalen eta aktore lanetan ari zen. Portugalera eta frantsesa menderatzen ditu eta gaztelera ulertzen du (aita espainiarra du).

Asko bidaiatu dute, baina bizikleta ez dute orain arte bidaietarako erabili. «Bidaia mantsoa eta merkea egin nahi genuen, ahalik eta hoberen ezagutzeko lurraldeak eta jendeak, eta bizikleta da horretarako modu hobereana», dio Poloniak Tolosako taberna batean elkartu garenean. Horretarako biek bere lanak utzi eta abiatu egin ziren bizpahiru urtetarako, India iristeko asmotan, «diruaren araber» bidaia luzeagoa edo motzagoa egiteko asmotan. Ditutzen bi txakur txikiak (8 kg) hartzeko asmoa zuten. Nazioarteko pasaporte ere badute txakurrek. Bizpahiru astez proba batzuk egiten ere aritu ziren, baina bidaia zaildu egiten zutelakonturatu ziren eta ideia baztertu zuten.

Euskal Herria gustuko

Bakoitzak gurditxo bat darama bizikletari lotuta, behar dituzten gauza guztiak eramateko, 15-20 kg inguru bakoitzak. Lehendabizik egunetan, «Portugaldik azkar ateratzeko», 80-100 km egiten zituzten egunero, orain 60-80 km, errepidea eta eguraldiaren arabera. Astean bi eguneko atsedena hartzen dute, jendearekin edo lekuekin gustura daudenean. «Tolosara iritsi zirenean euri asko egin zien eta gaixo itxura ekarri zuten: blai egin da, mutlak belanean minez, neska kolpe batekin. Arreba fisioterapia da eta hurrengo egunean harengana eraman nituen», dio Olaetxeak.

Tolosa eta ingurua ezagutzeko aukera izan dute, baita dantza garaikideko ikuskizun bat ikusteko ere. «Euskal Herritik gehiena paisajea gustatu zaigu. Oso berdea da», dio Poloniak. Biak barazkijaleak direnez, euskal sukaldaritzaren plater ospetsuenak ezagutzeko paradarik ez dute izan.



Tanya Ruivo eta Rafael Polonia Tolosatik abiatzen, egun pare bat hemengo etxe batean pasatu ondoren. ELI GURRUTXAGA

Europa eta Asia bizikletaz ezagutzeko asmoa dute Tanya Ruivok eta Rafael Poloniak; Tolosan ere izan ziren egun pare batez, tolosar batzuen etxean, webgune batean egindako harremanari esker.

Munduan bizikletaz

Bereziki ezagutu nahi dituzten herrialdeak Asian India (kooperante modura izan zen eta lagunak ditu) eta Europan Kroazia, Suedia, Errumania eta Turkia dira Rafael Poloniarentzat eta Hegoamerika, Mexiko eta Kuba Tanya Ruivorentzat. «Afrikan bizikletaz bidaiatzeko ondo prestatuta egon behar duzu, esperientzia handia behar duzu, behartsua delako, baliabiderik ez dutelako. Australiak ez nau erakartzen Europa bezala delako», dio mutlak.

Finantzaketa eta zabalpena

Bidaia finantzatzeko kamiseta batzuk saldu zituzten eta bere herriko astekari batean (www.pracaput.com) bidaiaren egunerokoarekin eta alderdi femeninoa beste blog batean (lesciseauxpointus.blogspot.com) jasotzen du Ruivok. Bidaiaren bukaeran eskoletan erakutsi nahi dute dena.

Bidaia «mantsoa eta merkea» egin nahi dute, bizikleta da horretarako modu hobereana

Indiara iristea dute helburu; Kroazia, Suedia, Errumania, Mexiko, Kuba ere gustuko dituzte

bllica.com) astero bidaia kronikak argitaratzen dituzte, oraingo ekaina bitarte eta gero beste sei hilabetez luzatzeko asmotan, Europan zehar zortzi hilabetez ibiltzea kalkulatzen baitute. Bloga ere badute (2numundosobrerodas.blogspot.com) bidaiaren egunerokoarekin eta alderdi femeninoa beste blog batean (lesciseauxpointus.blogspot.com) jasotzen du Ruivok. Bidaiaren bukaeran eskoletan erakutsi nahi dute dena.

Liburu bat idaztea ere ez dute baztertzen, «baina bere denbora behar du». Etxekoekin eta lagunekin harremana ez dute galdtu. «Bidaiaren zentzua hori da, konpartitzea», dio ziklistak. «Gertaerek egiten dute bidaia ona, lekuak baino gehiago pertsonak. Horregatik herri batzuetatik ateratzea kosta egiten zaigu, ezagutu duzun eta hain ondo tratatu zaituen jendea uztea kosta egiten delako», erantsen du.

Iñaki Olaetxea tolosarra azken bi hauetako partaidea da eta ez da bakarra Tolosan. «Izena ematen da, zure zaletasunak, herriaren eta etxearen ezaugarriak eta horrelako datu batzuk emanez. Izena eman nuenetik, hauek izan dira hartu ditudan lehen bidaiariak, besteetan oporretan edo lanpetuta nengoa. Hori bai, kasu batzuetan lagun batzuk bilatu dizkiet eta haien etxetan izan dira», dio. Ziklista portugaldarrek berriz, larrogei bat bidaiari hartu dituzte bere etxean azken lau urteotan. Eta sistema hau erabiliz bidaiatu dute Frantziatik, Italian, Indian...

Funtzionamendu simplea da. Gela bat, sofa bat edo lurtean lo egiteko aukera eskaini daiteke. Internetez jartzen dira harremanetan eta bi aldeei ondo badatorkie aurrera egiten dute. Normalean egun bat edo bi pasatzen dira etxe batean. Hauek Donostian bazuten beste etxe bat hirtartuta eta Biarritzen bilatzeko harremanetan hasiak ziren Tolosan izan zirenean. Bestela, kanpingetan, albergeetan edo bestela moldatzen dira. www.hospitality.com webgunean adibidez, 15.000 pertsona dauka Espainian, eta Alemanian 40.000 baino gehiago. «Herrialdeak eta jendea ezagutzeko modu ona da», dio Olaetxeak. Gainera etxe batean izan ondoren, bi aldeek bere iritzia idatz dezakete webgunean, besteentzat ere erreferentzia puntua izan dadin.

LO EGITEKO SISTEMA MERKEA INTERNETEN

Istoria honetako protagonisten lo egiteko sare merkea erabiltzen dute ahal duten guztietan: etxean bidaiariak hartzeko prest dauden lagunak. Horiek harremanetan jartzeko badira, gutxienez, hiru webgune: bat bizikletarientzat bereziki (www.warmshowers.com) eta besteak edozein bidaiarientzat (www.hospitalityclub.org, www.couchsurfing.com).

Iñaki Olaetxea tolosarra azken bi hauetako partaidea da eta ez da bakarra Tolosan. «Izena ematen da, zure zaletasunak, herriaren eta etxearen ezaugarriak eta horrelako datu batzuk emanez. Izena eman nuenetik, hauek izan dira hartu ditudan lehen bidaiariak, besteetan oporretan edo lanpetuta nengoa. Hori bai, kasu batzuetan lagun batzuk bilatu dizkiet eta haien etxetan izan dira», dio. Ziklista portugaldarrek berriz, larrogei bat bidaiari hartu dituzte bere etxean azken lau urteotan. Eta sistema hau erabiliz bidaiatu dute Frantziatik, Italian, Indian...

Funtzionamendu simplea da. Gela bat, sofa bat edo lurtean lo egiteko aukera eskaini daiteke. Internetez jartzen dira harremanetan eta bi aldeei ondo badatorkie aurrera egiten dute. Normalean egun bat edo bi pasatzen dira etxe batean. Hauek Donostian bazuten beste etxe bat hirtartuta eta Biarritzen bilatzeko harremanetan hasiak ziren Tolosan izan zirenean. Bestela, kanpingetan, albergeetan edo bestela moldatzen dira.

www.hospitality.com webgunean adibidez, 15.000 pertsona dauka Espainian, eta Alemanian 40.000 baino gehiago. «Herrialdeak eta jendea ezagutzeko modu ona da», dio Olaetxeak. Gainera etxe batean izan ondoren, bi aldeek bere iritzia idatz dezakete webgunean, besteentzat ere erreferentzia puntua izan dadin.



Tolosako egonaldian oso gustura izan da bikote txirridulari portugaldarra. JOXEMI SAIZAR



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitateak: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaldeak: 687 410 022. anoetaldeak@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldeak: 687 410 032. ibarraldeak@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdeak: 687 410 034. alegialdeak@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Aduna.** Aiztondo III. gutun lehiaketaren sari banaketa, Adunako Kultur Aretuan, 18:00etan, irabazle bakoitzak bere gutuna irakurriko du eta ondoren luntxa izango da.
- **Albiztur.** Hilaren 30eko, Kultur Astearen barruan, paella jaterako txartelak 5 euroren truke eros daitezke udaletxean zein herriko etxean jabetxean. Frontoian presatuko duten paellarekin batera postrea, kopa eta kafea izango dira.
- **Tolosa.** 17:00etatik 20:00etara kultura arabiarreko tailerrak plaza Berrian, ereite elkarrekin antolatuta.
- **Tolosa.** Uzturren 12:00etan Bernardo Bidaola *Txiritari* omenaldia.
- **Tolosa.** 7 eta 15 urte arteko gazteentzako pintura lehiaketa elkarbizitzaz. Lanak hilaren 25etik 29ra entregatu behar dira Kultur Etxean edo Sükrü Karaçusen estudioan (Zabalarreta 5). Oinarriak: www.tolosakoudala.net.

Kultur asteak

- **Leitza.** XXXI. Kultur Astea: 10:00etatik 14:00etara Gorrittean Peru-harrira bisita libre, 12:30ean aurkezpena, 18:30ean

Elizan organo kontzertua Raul del Tororen ikasleen eskutik, 19:30ean Zinean dantza kontenporaneo: Locus Desertus.
■ **Lizartza.** 11:00etan hamaiketako elkarteak, 12:00etan pilota saioa, 14:00etan helduen bazkaria doan eta 18:00etan herri kirolak Lizartza eta Gazteluren artean, Kultur Astearren barruan.

Kirola

- **Baliarrain.** Baliarraingo II. Frontenis Txapelketa antolatu dute. Bertan parte hartzeko, gizonetakoek banaka eta emakumezkoek binaka, izena eman dezakete Aralar Kirolak-en (Tolosa). Bost euro balio du. Txapelketa ekaineko lehen bi asteburuetan jokatuko dute.
- **Zizurkil.** XI. Biatloia, goizean zehar.

Irteerak

- **Tolosa.** Harizpe jubilatua eta pentsiadun elkarteak bidaia antolatu du Playa de Arora (Girona, Herrialde Katalanak). Ekainaren Tean joango dira eta 15ean itzuli. Oporraldiaren prezioa bazkideentzat 391 euro da eta gainontzekoentzat 397. Elkarteak eman daitezke.

- **Tolosa.** Amartzeko jubilatuek Arnedora irteera antolatu dute hilaren 26rako. Informazioa 653 747192 telefono zenbakian.
- **Ibarra.** Maitzaren 30ean eta 31n moto irteera antolatu dute Nafarroako Acedora. Izena *langostino-motofesta@gmail.com* edota 630 784213, 670 417915 edo 636 403170 telefono zenbakietan.

Zinema

- **Tolosa.** *Munduaren bira doan* haurrentzako filma emango dute euskaraz Leidor aretoan 17:00etan. Eta *La sombra del poder* filma 19:30ean eta 22:00etatik aurrera.

Erakusketak

- **Tolosa.** Iñaki Moreno Ruiz de Eguinoren erakusketaren irekiera Aranburu Jauregian, bertan izango da ekainak 27 arte.
- **Tolosa.** Noelia Crujeiras artistaren olio-lanak, burni eta marmore hautsean egindako artelanak Itaie tabernan.
- **Ibarra.** Urtzi Uriarte argazkilariren *Te pito o te henua* erakusketak Benito Izagirre kultur etxean Pascua uhartean.
- **Tolosa.** Txileko Kiltv kolektiborekin margolanak ikusgai GKO Galleryn.
- **Zizurkil.** Oteiza, *bizirik proiektua* erakusketak Atxulondo kultur etxean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

Bihar

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

A Agurrak



Zorionak!

Eneko eta Jon (Tolosa).

Ondo-ondo pasa zuen Jaunartze egunean. Bi familien partetik.



Urte askoan!

Aitor Ibarzabal Jauregi (Tolosa). Atzo 9 urte. Zorionak eta muxu handi bat denon partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Euskarazko lehen sukaldaritza bilduma!

berriaren harpidedun eta irakurleek erdi prezioan: 12€

Bete ezazu **maiatzaren 20tik 31 bitartean** BERRIAN argitaratuko den **erreserba kupoia** eta utzi zure kioskoan **maiatzaren 31** baino lehen. Bi asteren buruan kiosko berean jasoko duzu liburua.

Laguntzailea: **FAGOR** www.fagor.com

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**